

Urtzi Urrutikoetxea

KAZETARIA ETA IDAZLEA

Gaiztakerian

Hau ateratzeko asteburuak ekitaldiz beteta eta ziur aski balizko koalizioez ere idatziko denez, laburbil dezagun: urtebete barru bere burua abertzaletzat daukan lehendakaria izango dugu mendebaldean. Jeltzalea edo soberanista, hauteskundeak nork irabazi eta kartak zelan jokatu. Herritarroi, begiratzea eta bozkatzera omen dagokigu. Eta bultza egitea, gatazkaren ondorioak gainditzeko. Batzuek maite dituztelako nahi dituzte etxean, baina maite ez dituztenek ere badakite auzi hori gabe ez dagoela ixterik. Edo itxita ere, ofizialki itxitzat emanda ere, automatikoki zabalik dela. Argiago zioen Ed Milibandek iazko urrian: gaiari heldu ezean, haserre eta bizitzarako perspektiba eskasekin zeuzkan ehunka militantek egoerari aurre egin beharko ziola zioen Europak. Ez da ohiko perspektiba, baina edonondik begiratuta ere, presoen gaia ondo itxi beharra nabarmentzen zuen britaniarrak.

Ulertzekoa da, neurri batean, hori guztia atzerarazteko Espainiaren estrategia, etsipena piztu nahia ere. Ilusioak independentismoa hauspotu duela ikusita bereziki. Eta, mahai hori itxita –deitu “teknikoa” edo “militarra”–, beste mahaia datorrela jakitun: gatazkaren beraren oinarriari, ez hainbeste hizkuntzak edo Erdi Aroko estatuak



INIGO AZKONA

zilegitasun handiagoa ematen duen, XXI. mendeko Espainiaren baitan gauden baina geure burua naziotzat dugun bi lurraldek estatu osoari zilegitasuna kentzen diogula baizik. Eta horretarako galdetu beharra dauka, arrisku guztiek: estatuaren baitan jarraitu nahi duzue ala bereizitako estatua sortu? Ikuspegi demokratikoa izatera, lehenak berebiziko indarra emango lioke Espainiari, mendetako itxitasuna apurtu eta naturaltasunez Europako testuinguru demokratikoan barneratzeko. Bigarrenak ere, bi nazio aberats “galtzearen” hasierako traumaren ondotik, on egingo lioke, dagoen horretan bere burua onartu eta aurrera egiteko.

Hortxe “bigarren mahai” horrek eztabaidatu beharrekoak. Jon Maiaren *Gazta zati zati* filman Angel Oiarbidek dioenez, “autodeterminazioa gai serioegia da alderdi politikoen esku uzteko”. Sekulako lezioa eman dute, Idiazabalen hasi eta Goierrin segi, Nazioen Mundua ekimenarekin. Ezberdinak elkartu eta aurreiritzirik gabe eztabaidatu, akordioak lortu eta oinarritzokoren alde egiteko: geuk erabaki nahi dugu, hala dagokigu. Gauzatu behar dugu eskubide hori, urteotako drama hau amaitu eta behingoz lasai bizitzeko. Nazioen Mundu horretara bildu behar dugu. ■



«
Ulertzekoa da, neurri
batean, Espainiaren
estrategia, etsipena
piztu nahia. Ilusioak
independentismoa
hauspotu duela
ikusita bereziki

»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Muga inguruan bizi garenok ohikoa dugu gure diru pitxarrak bi estatuetakoa bankuetako kontu korrontetan edukitzea. Alde batean lana, bestean etxea. Alde batean lansaria, bestean gastuak. Eta batetik besterako bidaiari, bankuek komisioa hartzen dutenez likidoan garraiatzea zaigu merkeena. Aurreko astean Hendaiaikoan sartu behar izan nuen, hara egin nuen bi hilabeteko saria patrikan nuela. Leihatilara jo eta bertako langileak sosaren nondikakoa galdetu zidan. Nire haserre adierazi aurrez, sosaren nondikakoa agiri batez frogatu beharko nuela, bestela, ezingo nuela sosa nire kontuan sartu

Sosen kontrola

esanda bidali ninduen. Gaur jakin dut Espainiako ogasunak diru beltzarentzat bidea libratu duela, bankura joan kontua ireki eta sosa sartu litekeela inongo agiririk gabe. Ez diotela inori ezer eskatuko, alegia. Hori bai, langile batek bildu lezakeenaz ez dute deus esaten, beltza behar du izan, pitxarra paketea baino patrikan kabitzen ez dena larruzko poltsa lepo behar duena. Ahal badut beste pitxar bat aurreratu larruzko poltsan sartu eta langile berarengana egin behar dut ea zer dioen. Eta diogenaren arabera sesioan sartzeko gogoia berdintzeari ekingo diot. Eta egingo dudanari eskandalua deituko diote. ■

